

**Edurne Larraza Mendiluze**

UEUko Informatika saileko arduraduna  
eta EHUko irakasle eta ikertzailea



## Sare neutral bat litzateke irtenbidea

Via campesinaren elikadura-burujabetzaren definizioa moldatuz, herri edo komunitate bat teknologikoki burujabe bada, "badu nagusitasuna merkataritza-auzien gainetik teknologia eta teknologien ekoizpena kontrolatzeko". Baina zein da horretarako bidea?

Maiatzaren 17an, UEUko Informatika sailak antolatu ohi duen Informatikari Euskaldunen XI. Bilkuran, egun betez aritu ginen gaiaren inguruan. Domeinu propioa edukitzea garrantzitsua den arren, burujabetza teknologikoa askoz haratago doa, eta, horregatik, mintzagai izan genituen azpiegitura teknologikoak eta komunikazio-burujabetza, hezkuntza teknologikoa eta teknologia hezkuntzan, segurta-

suneta eta pribatutasuna, eta herri eta herritar burujabeagoak izateko ezinbestekoa den softwarea. Lau arlo dira, eta egunean zehar ikusi genuen moduan, lotura ugari dituzte. Besteak beste, guztietan dute berebiziko garrantzia *komunitate, libre* eta *publiko* gisako kontzeptuek.

Azpiegiturei dagokienez, adibidez, ustiapen pribatua nagusi den garai honetan, negozioaren planotik eskubideen planora pasatu eta sare-azpiegiturak XXI. mendeko eskubide unibertsal izan daitezten, ezin da operadoreen esku utzi azpiegiturak kudeatzeko eta sortzeko ardura. Irtenbidea litzateke zenbait eragileren artean sare neutral bakarria sortzea, gerora operadoreek zerbitzua emateko erabiliko dutena. Eredu eta azpiegitura komunitarioen adibide da Izarkom, Kataluniako guifinet proiektuan oinarritutako eredia lantzen duena: tokian tokiko eragileek sare propioa egin eta beste sareekin interkonektatzea, hain zuzen ere. Horrelako proiektuak irakasgai interesgarri izan daitezke burujabetzarako bidean politika propioak garatzeko, haiek ahalbidetuko baitute bereizketarik ez egotea hiri eta landa-inguruneetako biztanleen artean. ●



### Olatz Arbelaitz Gallego

UEUko informatika saileko kidea  
eta EHUKo irakasle eta ikertzailea

# Denok daukagu zer egina

Ikasten dugunaren isla izango gara, eta, beraz, burujabetza teknologikorako bidean ezinbestekoa izango da hezkuntzatik hastea: azpiegituren erabilera jasangarria sustatzea, posta elektronikorako eta sarean informazioa gordetzea; google uztea ahalbidetuko diguten azpiegitura publikoak eta software lokalizatua erabiltzea, eta segurtasun eta pribatutasunaz gogoeta egitea. Software libre eta tresnen hizkuntza-aukera jakinak erabiltzera derrihortuz eragin dezakete instituzioek, baina ardura banatua dago, denok daukagu zer egina.

Segurtasunaren alorrean, alderdi filosofikoak ere kontuan hartu beharko lirateke. Adibidez, gaur egun garatzen ari diren IoT eta hiri edo gailu adimendunetan sortuko diren segurtasun-arazoez hausnartu beharko genuke. Izan ere, azpiegitura kritikoei eginiko erasoek zuzen-zuzenean eragiten diote gizartearen ongizateari; burujabetzaren aurkako erasoak dira. Norbanakoek sen ona erabili beharko

dugu: pasahitz egokiak jarri, jasotzen dugun informazioarekin kritiko izan eta gure datuak babestu beharko ditugu, nortasun digitala lapurtzen badigute kalte handia egin diezagukete eta. Azpiegituren kasuan, berriz, jabeak bermatu beharko luke segurtasuna, zeina funtsezkoa izango baita pribatutasunarekin batera.

Azkenik, informatikak datuak prozesatzen ditu, oro har, eta hain lagungarri zaizkigun Hizkuntza Teknologiek, adibidez, garatzeko datu irekiak edo publikoak behar dituzte, guk maiz enpresa erraldoien esku jartzen ditugunak. Gobernuak ere irekia behar luke izan, gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana izanik ardatz eta garrantzitsu eginez zuzenean parte hartzeko sistema digitalak. Burujabetzak datu libreak (datu-burujabetza) behar ditu, azpiegitura eta software libreaz gain, eta garrantzitsua da horiek euskaraz izatea eta erabiltzea. Ea hurrengo IEBrako euskarazko software librearen gunen bat martxan egotea lortzen dugun! ●